

Getxo >MEETING<



Maiatzak 18. Getxo MEETINGen laburpena Zure enpresaren ikuspegia 3 urterako eraikitzea

Hona hemen hiru urrats zure enpresan hemendik hiru urtera pentsatzeko.

- 1) Hartu denbora apur bat horretan modu eksklusiboan pentsatzeko. Funtsezkoa da zure ohiko lantokitik irtetea eta kontzentziora gonbidatuko duen espazio lasaia bilatzea. Pentsatzeaz gain, zure pentsamenduak idatziz edo marrazkien bidez islatu behar dira. Edozer egiten duzula ere, ezin da hitz edo pentsamenduetan soilik geratu. Nonbait islatuta geratu behar du.
- 2) Deskribatu paper batean enpresaren egungo egoera modu objektiboan: Orainaren argazkia lortzeak objektibotasuna irabazteko balioko dizu, batzuetan dagoeneko baditugun gauzak lortu nahi baititugu.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica>

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:



3) Pentsatu lor daitezkeen eta neur daitezkeen helburuetan. Jarri negozio-zifrak, pentsatu zer den arrakasta zuretzat. Idatzi zein enpresarekin egin nahi duzun lan eta deskribatu zer egin nahi duzun eta egin nahi dituzun lan horiek nolakoak izatea nahi duzun.

Eta gogoratu:

- Helburuak markatzen badituzu, errazagoa da horiek lortzea.
- Bidean planak aldatzen badira ere, garrantzitsua da helmuga bat jartzea, egunerokoan erabakiak hartzen lagunduko dizuna.

Horrek aukera emango dizu:

- zure helburuekin bat ez datozen proiektuei kontzienteki ezetz esateko
- merkataritza-lana elikatzeko, denbora galdu gabe eta nahi duzun horretara bideratuta.
- zure bezero egokiak lortzeko plan bat jarraitzeko

Orain ulertzen duzu zergatik den garrantzitsua ibilgailua gelditzea nora joan nahi duzun pentsatzeko?

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica>



Jarrai gaitzazu: / Síguenos en: